

ZIBER-**STEE-EILAS**

2007/03/26

HAUR ESKOLETAN UMEAK HEZITZAILE??

Egun hauetan arazo larri baten aurrean aurkitzen gara hainbat hezitzailek dagozkigun 4 egunak hartuko ditugularik behar beste ordezkorik ez dira bidaliko eta. Hezitzaile bakoitzak egunak noiz hartuko dituen irailetik erabakita dago, era berean Aste Santuan zenbat ume etorriko diren Haurreskoletara duela hilabete bat edo badakigu.

Egoera benetan larriak sortuko dira hainbat haur eskoletan plantila osatu gabe egonda ohiko ordutegia mantenduz. Zerbait egin behar delakoan gaude, hauek dira STEE-EILASen egiten ditugun proposamenak:

- ◆ Aurten Haurreskola bakoitzeko Jarraipen Batzordea konbokatzea eta arazoa planteatzea: ume kopurua ez dela gutxituko baina hezitzaileak oporrak dituztela eta guztiak ez direla ordezkaturiko. Ondorioz, egun horietan ordutegia murriztu behar da, umeak dauden bitartean ondo atenditu ahal izango direla ziurtatzeko.
- ◆ Hurrengo ikasturtetik aurrera 4 egunak edozein datetan hartzeko aukera eman.

Bestaldetik, ordezkoen falta ez da egun hauetan soilik igartzen, urte osoan baizik, honek hausnarketa sakonagoa eskatzen du:

Gure zerrendan 1802 langilek izena eman dute. Hala ere, Haurreskoletan lan egiten ari garenok ez gara 800era ailegatzen, beste 1000 ez dira animatzen Partzuergoan lan egiten. Ordezkapen laburrak han-hemenka egiten ibiltzea gogorra da, edozein kontratu duenak, oso kaxkarra izan arren, horri eusten dio Partzuergoko egun bateko edo biko kontratua hartu beharrean. Behin baino gehiagotan aipatu dugu bakanteak sortu beharko liratekeela zonaldeka ordezkapen laburrak betetzeko, hola lehen kontratuak erakargarriagoak lirateke.

Gainera, hezitzaile asko dira Hezkuntza Saileko zerrendetatik deitu bezain pronto Haurreskolak uzten dutenak. Arrazoia argi dago: hango lan baldintzak (ordutegia eta egutegia batez ere) hobekien dira. Beraz, Haurreskoletako langileen lan baldintzak Hezkuntza Sailakoekin parekatuz gero arazoa erabat konponduko litzatekeelakoan gaude.